2.– Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak.

3.– Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimentazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein.

Era berean, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeko 4. artikuluan aurreikusitako xedeak betetzen lagunduko dute agindu honetako laguntzek.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean izango dituen aurrekontu orokorrak zehaztuta daudenean, programei diru-laguntzak eman edo ez erabakitze arauak eguneratu, berrikusi edo, hala behar badu, ezarri beharko dira. Zehaztugabeko indarraldia eman zitzaizen diru-laguntzen kasuan, dagokien deialdia egin beharko da; halaxe xedatu baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

Halaber, Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak sakon berrikusten du toki-administrazioaren estatutu juridikoari buruzko xedapenen multzoa, oinarritzko hainbat xede betetzeko: besteak beste, udalen eskumenak argitzea, beste administrazio batzuen eskumenekin bikoiztasunik sortu ez dadin; hartara, printzipio hau gauzatu nahi da: «administrazio bat, eskumen bat». Horregatik, mankomunitateak deialdi honetako eremu subjektibotik kanpo geratu dira.

Kontuan izanik diruz lagun daitezkeen jardueretatik indarraldi zehaztugabea nahiz aldi baterako indarraldia izango dutenak arautu direla azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuan, eta dekretu horretako 10.4 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, hots, publikotasun-printzipioa betetze aldera, egoki den deialdia egingo du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak. Hortaz, agindu hau eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharra dago.

Hori guztia kontuan hartuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuan aurreikusitako laguntzak 2015erako deitzea.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Honako hauek izan daitezke Agindu honetan ezarritako laguntzen erakunde onuradunak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan legez eratu badira:

a) Udalak.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu zen. Bada, 27/2013 Legean xedatzen denez, udalek, onuradun izateko, bikoiztasunik ezari eta finantza-iraunkortasunari buruzko aldeko txostenak eskuratu beharko dituzte, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 7.4 artikuluan adierazten denari jarraituz.

Alde horretatik, bikoiztasunik ezari buruzko txostena ofizioz erantsiko zaio espedienteari, eta toki-araubidearen arloko eskumena duen zuzendaritzari igorriko zaio udal kontu-hartzaitzak aurkeztu beharreko informazioarekin batera, hain zuzen ere zuzendaritza horrek finantza-iraunkortasunari buruzko txostena izapidetu dezan, finantza-zaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren aurrean, espedienteari erantsi behar baitzaio txosten hori ere.

Udal-elkarteak osatzen dituzten udal guztiek lortu beharko dituzte aipatutako txostenak, goian ezarritako eran.

b) Toki eta Eskualdeko Garapen agentziak, betiere nortasun juridiko independentea badute.

c) Udal-sozietateak, beraien gizarte-helburuen artean prestakuntza dutenak.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke tokiko enpresa-erakunde publikoak eta tokiko merkataritza-sozietateak, baldin eta haien kapital soziala osorik toki-erakundeari badagokio eta egiaztatuta geratzen bada, horretarako egindako justifikazio-txosten bidez, erakunde horiek iraunkorrakoak eta eraginkorrakoak direla toki-erakundeek eta toki-erakunde autonomoek berek egindako kudeaketa baino. Horretarako, aintzat hartuko dira errentagarritasun ekonomikoaren irizpideak eta inbertsioa berreskuratzekoak.

Horretaz gainera, jasotako aholkularitzari buruzko justifikazio-txostena erantsi behar zaio espedienteari. Txostenean, zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak eta jasotako laguntza teknikoak bilduko dira, eta horien publizitatea egin beharko da. Ondoren, udalbatzari helaraziko zaio txosten hori, onartu dezan. Horretarako, kontu-hartzailearen txostena eskatuko da.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateak, 4.2.c) artikuluan jasotako esperimenteratze proiektuetarako bakarrik.

e) Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Fundazioen Erregistroan eroldaturiko irabazi-asmorik gabeko elkarteak, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza-jarduketak garatzen dituztenak (herritarren

parte-hartzea bultzatzen dituzten jarduketak, bereziki), eta haien helburuen artean prestakuntza dutenak.

f) Lanbide Heziketako edota Helduentzako Heziketako Ikastetxe pribatu baimendunak.

g) Merkataritzako edo gizarte-ekonomiako sozietateak, beraien helburuen artean prestakuntza dutenak.

3. artikulua.– Izapideak modu elektronikoa egitea.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, eta Informatika eta Teknologiko zuzendariak otsailaren 9an emandako Ebazpenak; ebazpen horren bidez, PLATEA E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa arautzen da.

3.– Eskabidearekin, justifikazioarekin eta deialdiarekin zerikusia duten gainerako izapideak egiteko jarraibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, honako helbide honetan:

[https://www.euskadi.net/ayuda\\_subvencion/2015/bozi/y22-izapide/es](https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2015/bozi/y22-izapide/es)

4.– Eskabidearen ondoko izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire Kudeaketak» atalean egingo dira:

<https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

5.– Eskaerak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira aipatutako egoitza elektronikoa.

Eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea: epea eta formularioak.

1.– Hogeit egun naturaleko epea izango da eskaerak aurkezteko, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskaerekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Proiektuan aurreikusitako jarduera-multzoa deskribatzen duen txostena, honako hauek adieraziz: proiektuaren izena; proiektua egiteko eskatzen den diru-kopurua; gauzatu beharreko jarduketan edukiak; helburuak; kokalekua; denbora-eremua; jarduera zein pertsona-multzori zuzentzen zaion; jardueran parte hartzen duten eragile eta interesdunen elkarteak; proposatutako metodologia; jardueraren kostua atalez atal (langileak eta funtzionamendua); aurreikusitako ekin-tzak eta proiektua definitzeko balio duten gainerako inguruabarrak.



- Azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuaren 5.2 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, bitartekaritza-zerbitzua emango duten pertsonak bizialdi osoko prestakuntzarako orientazioa ematen gutxienez 2 urteko lan-eskarmetua dutela erakusten duten egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte ikaskuntza-bitartekaritza emateko zerbitzurako finantzazioa eskatzen duten erakundeek. Langileak lanean aritutako erakundeetako titularrek emandako egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

- Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean xedatzen denez, udalek egiztatu beharko dute dagokion arloko administrazio eskudunak egin beharreko txostenak eskatu dituztela; txosten horietan, adieraziko da ez dagoela bikoiztasunik. Horretaz gainera, udalek finantza-zaintzaren eskumena duen administrazioari eskatu beharko diote baliatu nahi duten eskumenaren finantza-iraunkortasunari buruzko txostena.

Tokiko enpresa-erakunde publikoek eta tokiko merkataritza-sozietateek justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dituzte, zehazki agindu honen 2.c) artikuluan aipatzen direnak.

3.– Egiztatu beharko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela.

Organo kudeatzaileak behar beste aldiz egiztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; horretarako ez du haien baimenik behar izango, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

5. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzaren eskabidea behar bezala beteta ez badago edo atxiki beharreko dokumentazioa falta dela ikusiz gero, interesdunari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean osatzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko. Epe horretan zuzenketa egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena emango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Akatsak zuzentzeko jakinarazpena bide elektronikoz egingo da. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen «Nire Kudeaketak» atalean kontsultatu beharko dira.

Interesdunak jakinarazpenaren jasotze-agiria elektronikoki sinatzen duenean, jakinarazpena egintzat emango da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat hartuko da, eta izapidea gauzaturat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikotara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6. artikulua.– Ebazpena argitara ematea eta errekursoak.

1.– Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratuko da ebazpena, eta jakinarazi eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

2.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

7. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

248/2012 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutako irizpideak betez ebaluatuko dira eskaerak, I., II. eta III. eranskinetako eskemak oinarri hartuta.

8. artikulua.– Finantzaketa.

1.– 420.000,00 euro erabiliko dira deialdi hau finantzatzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

2.– Hona jarduera-mota bakoitzarentzat erabilgarri egongo diren gehieneko zenbatekoak:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikokoak: 150.000,00 euro.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 200.000,00 euro.

c) Esperimentazio-proiektuak: 70.000,00 euro.

3.– Diru-laguntza ematean, lehenengo ordainketa egingo da; emandako diru-laguntza guztiaren % 15. Ondoren, diruz lagundutako proiektuaren jarduera guztiak amaitu eta 3 hilabeteko gehieneko epearen barruan, azken txostena jasotzean, diru-laguntzaren beste % 85a ordainduko da. Halaxe xedatu baita 248/2012 Dekretuaren 17.1.b) artikuluan.

4.– Bigarren ordainketaren % 50a kontura ordain daiteke, erakunde onuradunak horretarako eskaera egiten badu. Horrelakoetan, garatutako jardueraren tarteko txostena egin beharko du, eta, han, proiektuaren ordura arteko garapenari buruzko informazioa eman eta gastuen egiaztagiriak aurkeztu. Justifikazio ekonomikoa egiteko, egindako gastu guztien –nominen zein fakturen– zerrenda aurkeztuko da, honako hauek adieraziz: data, kontzeptua, zenbateko osoa, zenbateko egozgarria (hala badagokio) eta ordainketa-data.

Konturako ordainketa ezin izango da eskatu harik eta diruz lagundutako jardueraren 2/3ak gutxienez garatu arte.

5.– Deialdi honen funtsen kargura honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira: proiektuan zuzenean parte hartzen duten eta diruz lagundutako jarduera garatzeko ezinbestekoak diren langileen gastuak eta diruz lagundutako jarduera garatzearen ondorioz zuzenean sortutako funtzionamendu-gastuak.

Finantza daitezkeen gastu guztien % 10 izan daitezke, gehienez ere, funtzionamendu arrunteko gastu; besteak beste: proiektuaren zuzendaritza-, koordinazio-, kudeaketa- eta administrazio-gastuak; komunikazio-gastuak; ura; argia eta lokalen alokairua edo amortizazioa.

6.– Hona jarduera-mota bakoitza finantzatzeko gehieneko zenbatekoak:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: plaza eta prestakuntza-ordu bakoitzeko 7 euro gehie-  
nez; 18.000 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 35.000 euro, gehienez ere, bitartekaritza-zerbitzuari  
egozten zaion eta lanaldi osoz aritzen den bitartekari bakoitzeko. Bitartekaritza-zerbitzua gutxie-  
nez 100.000 biztanleko udalerrri batean edo gutxienez 60.000 biztanleko eskualde batean ematen  
bada, lanaldi osoz arituko den bitartekari bat egotziko da.

c) Esperimentazio-proiektuak: 20.000 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

9. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek azaroaren 27ko 248/2012 Dekreturen 8. artikuluan zehazten diren bete-  
beharrak izango dituzte. Horretaz gainera, agindu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun  
diren udalek bikoiztasunik ezari eta finantza-iraunkortasunari buruzko txostenak aurkeztu beharko  
dituzte, agindu honen 2.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

10. artikulua.– Proiektuak gauzatzeko epea.

2015. urtean abiarazi beharko dira onartutako proiektuak, eta 2016ko ekainaren 30era arte gara  
daitezke.

11. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan  
xedatutakoarekin bat etorritik, deialdi honen barruan sartu diren ekintzetan parte hartzeak berekin  
ekarriko ditu lege horretan aipatzen diren baimenak ematea.

Datuak babesteko arloan indarrean den araudiaren mendean geratuko da deialdi honen barruan  
aurkeztutako eskabideetan jasotako informazioa.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betez, inte-  
resdunak eskaera egiteak berekin ekarriko du eskabide-orrian jasotako datuak «Erakunde  
kolaboratzaileak» izeneko fitxategian biltzeko baimena ematea. Diru-laguntzen deialdi hau  
kudeatzeko eta deialdian parte hartu dutenei haren berri emateko erabiliko dira fitxategi horre-  
tan bildutako datuak. Fitxategi horren arduraduna Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza da. Lege  
horretan adierazitako sarbide-, zuzentze-, ezabatze-, eta aurkatze-eskubideak baliatzeko, Hezi-  
keta eta Ikaskuntza Zuzendaritzara jo beharko da; horretarako helbidea hau da: Donostia kalea 1,  
01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Heziketa eta Ikaskun-  
tzako Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-  
errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko  
epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hala  
xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-  
dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko  
auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko

2015eko urriaren 8a, osteguna

Auzien Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 29a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## PROIEKTU-MOTA: PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

**a) Ondoko hauek zenbateraino zehaztuta dauden: prestakuntza-jarduera zuzentzen zaien pertsonen multzoaren ezaugarriak; talde horren kuantifikazioa; ase nahi diren prestakuntza-beharrizanak zeintzuk diren; eta bete nahi diren helburuak, onuradunek gaitasunak eskuratzeari eta haien kualifikazioa hobetzeari dagokionean (25 puntu gehienez)**

- Jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldearen edo hartzaileen ezaugarriak eta kuantifikazioa (10 puntu gehienez)
- Bigarren Hezkuntzako ikasketa-titulua ez duten 30 urtetik gorako pertsonen edo 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago prestakuntza-jarduera (6 puntu)
- Jarduera zuzentzen zaien pertsonen zerrenda aurkeztu da (4 puntu)
- Hartzaileen prestakuntza-beharrak, jardueraren bidez estali nahi direnak (7 puntu gehienez)
- Hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko eta norberaren lanbide-kualifikazioa eguneratzeko beharrezkoak diren oinarrizko kompetentziatako gabeziak estali nahi dira: oinarrizko gaitasun instrumentalak, gaitasun digitalak, gaitasun pertsonal eta sozialak, eta ikasten ikastea (7 puntu)
- Estali nahi diren prestakuntza-beharrek honako hauekin lotura dute: autonomia pertsonala hobetzeko gaitasunarekin (memoria lantzea eta garatzea; etxeko ekonomia norberak kudeatzeko gaitasuna lantzea; aurrez aurre nahiz internet-bidez Ogasunarekin, Osakidetzarekin, eta gizarte-zerbitzuekin izapideak egitea; zerbitzu publikoen kontsumitzaile edo erabiltzaile diren aldetik, haien eskubideak defendatzea; eta abar); gizarte parte-hartzea eta borondatezko lana sustatzearekin 55 urte baino gehiagoko pertsonen artean, bai eta pertsona horiek gertuko beste herri-proiektu batzuetan parte har dezatela bultzatzearekin ere (7 puntu)
- Gaitasunak lantzearen eta kualifikazioak hobetzearen alorreko helburuak (8 puntu gehienez)
- Proiektuaren helburuek lotura dute lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko oinarrizko gaitasunak lortzearekin (30 urtetik gorako pertsonak) edo autonomia pertsonala eta gizarte parte-hartzea hobetzeko trebakuntzarekin (55 urtetik gorakoak); eta gaitasunetan zer aurrerakuntza espero diren zehaztu da (3 puntu)
- Hartzaileen kualifikazioarekin eta prestakuntza-beharrekin bat datoz helburuak (2 puntu)
- Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa aurreikusi da, eta ebaluazio-tresnak zehaztu dira (3 puntu)

 **GUZTIZKO PARTZIALA**

**b) Dagokion zonako Bizialdi Osoko Ikaskuntza Planaren barruan dago proposatutako jarduera (25 puntu gehienez)**

- Bizialdi Osoko Ikaskuntza Planeko prestakuntza-beharren artean dago proposatutako jarduera; eta plan horren kopia aurkeztu da (25 puntu)
- Zonaldean ez da, oraindik ere, bizialdi osoko ikaskuntza-planik; baina plan horretan lanean ari dira zonaldeko prestakuntza-eragile publikoak eta pribatuak. Kasu honetan:
- Zonaldeko prestakuntza-eragileek hautemandako prestakuntza-beharren artean da jarduera; eta horren frogak aurkeztu dira (10 puntu)
- Zonaldeko garapen sozialarekin eta produktiboarekin lotura du jarduerak, eta horren frogak aurkeztu dira (5 puntu)
- Tokian tokiko administrazioak edo zonaldeko eragile ekonomikoek babes ekonomikoa eman diote jarduerari; eta horren frogak aurkeztu dira (10 puntu)

 **GUZTIZKO PARTZIALA**

**c) Erakunde eskatzaileak izandako bilakaera eta helduen prestakuntzaren alorrean, kualifikazio txikiko helduei dagokienez, bereziki, duen fidagarritasun teknikoa. Fidagarritasun tekniko hori oinarrituko da garatu nahi den jarduera aurrera eramateko erabilitako baliabide materialen kalitatean eta esperientzian zein prestakuntzaren, bai eta jarduera garatzeko erabiliko diren giza-baliabideetan ere. (25 puntu gehienez)**

Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesionalak a) ataleko ezaugarriak betetzen dituzten eta 50 ordu baino gehiagoko iraupena izan duten ikastaroak eman dizkiete pertsona helduei azken 3 urteotan (0,10 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, 8 puntura heldu arte; edo, kualifikazio baxuko 30 urtetik gorako pertsonen kasuan, 0,30 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, 8 puntura heldu arte)

Erakunde eskatzaileak a) ataleko ezaugarriak betetzen dituzten eta 50 ordu baino gehiagoko iraupena izan duten pertsona helduen kualifikazioaren alorreko ikastaroak eman dizkie pertsona helduei azken 3 urteotan (0,20 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, 8 puntura heldu arte; edo, kualifikazio baxuko 30 urtetik gorako pertsonen kasuan, 0,40 puntu ikastaro bakoitzeko)

Baliabide materialak egokiak eta nahikoak dira jarduera garatzeko (9 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**d) Garatuko den prestakuntza-jarduketaren zehaztapena: edukiak, metodologia, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak, irauten duen ordu kopurua eta aurreikusitako programazioa. (25 puntu gehienez)**

Edukiak (8 puntu)

Edukiek lotura dute, zuzen-zuzenean, 55 urte baino gehiagoko pertsonen autonomia pertsonala eta gizarte parte-hartzea hobetzeko gaikuntzarekin; balioespen-irizpide hauetako a) ataleko zehaztapenekin; edo lanbide-kualifikazioa eguneratzeko eta hobetzeko prozesuetan sartzeko beharrezkoak diren oinarritzko gaitasunak lortzearekin (8 puntu)

Metodologia (4 puntu)

Proiektua zehatza da, haren arrazoiak eman dira, eta bat dator jardueraren edukiekin, xedeekin eta hartzaileekin (4 puntu)

Ikaskuntza-emaitzak eta ebaluazio-irizpideak (9 puntu gehienez)

Ikaskuntza-emaitzak zehatzak dira, edukiekin bat datoz, eta zehaztu da zer aurrerakuntza espero den hartzaileen kompetentzia-mailan (5 puntu)

Espero diren ikaskuntza-emaitzak lortu direla baieztatzeko balio dute ebaluazio-irizpideek (4 puntu)

Aurreikusitako programazioa eta iraupen-orduak (4 puntu)

Proiektua zehatza da, eta bat dator edukiekin nahiz helburuekin (4 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**GUZTIZKOA (100 PUNTU GEHIENEZ)**

## II. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK  
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- a) **Erakunde eskatzaileak ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak edota prestakuntzarako orientabide zerbitzuak ematen izandako bilakaera eta fidagarritasun teknikoa (20 puntu gehienez)**

Eskatutako bitartekaritza zerbitzuan erakundeak jarriko dituen langileek bizialdi osoko orientazioaren eremuan duten eskarmentua (2 puntu hirugarrenetik aurrerako urte bakoitzeko, 10 puntura arte; frogak aurkeztu behar dira)

Erakundeak ikaskuntzako bitartekaritza zerbitzuak edo prestakuntzako orientazio zerbitzuak emateko alorrean duen eskarmentua (puntu 1 hirugarrenetik aurrerako urte bakoitzeko, 10 puntu gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira)

GUZTIZKO PARTZIALA

- b) **Bitartekaritza-zerbitzua eman nahi den zonaldean erakundea zer puntutaraino errotuta dagoen (20 puntu gehienez)**

Udalekin, udalaz gaindiko erakundeekin, prestakuntza-zentroekin eta prestakuntzaren edo orientazioaren alorreko elkarteekin 2014. urtea baino lehen sinatutako prestakuntzaren, ikaskuntzaren eta orientazioaren alorreko akordioak edo lankidetzak-hitzarmenak (2 puntu bakoitzagatik, 20 puntu gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira)

GUZTIZKO PARTZIALA

- c) **Zonaldeko Bizialdi Osoko Ikaskuntza Plana egiteko eta, hala badagokio, plan horren jarraipena egiteko proiektua aurkeztu du (25 puntu gehienez)**

Zonaldeko prestakuntza-beharren eta zonaldean diharduten prestakuntza-eragileen uneko egoerari buruzko ikerketa oinarri duna dakar planak edo planaren proiektuak; eta, hartan, zonaldeko eragileetatik ukitutako horiek hartu dute parte (7 puntu, beti ere, ukitutako eragileen kopuru nahikoa adierazgarriak parte hartu duela frogatzen bada)

Lor, neur eta ebalua daitezkeen helburuen sorta dakar planak edo proiektuak; baita adierazleak argi zehaztu ere (8 puntu)

Administrazio publikoek eta zonaldeko prestakuntza-eragileek planarekin hartu duten parte-hartze eta konpromiso-mailaren frogak aurkeztu ditu erakunde eskatzaileak (puntu 1 planean parte hartuko duela eta harekin konpromisoa hartua duela egiaztatzen duen administrazio edo erakunde bakoitzeko; 10 puntu gehienez)

GUZTIZKO PARTZIALA

**d) Aurrera eraman nahi den bitartekaritza zerbitzuaren edukiaren zehaztapen-maila: zenbat pertsonari eman nahi dioten arreta; pertsona horien tipologia; arreta eman zaien pertsonen prestakuntzaren bilakaeraren jarraipena eta sustapena; dagokion eremuan bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko jarduerak, zerbitzuan arreta eman zaien pertsonekin, bereziki (gehienez 35 puntu)**

Zenbat pertsonari emango zaien informazioa, aholkuak eta haien prestakuntza-ibilbidea bultzatu (6 puntu gehienez)

$\geq 1.000$  pertsona (6 puntu)

$500 \leq \text{pertsona} < 1.000$  (4 puntu)

$300 \leq \text{pertsona} < 500$  (2 puntu)

Zerbitzua emango zaien pertsonen tipologia (6 puntu gehienez)

Zerbitzua emango zaien biztanleen  $\geq \% 60$ k kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (6 puntu)

Zerbitzua emango zaien biztanleen  $\% 40 \leq x < \% 60$  kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (2 puntu)

Pertsona bakoitzaren prestakuntza-ibilbidearen jarraipena egin eta bultzatzea (9 puntu gehienez)

Pertsona bakoitzari aholkua emateko prozesua banakakoa eta xehatua da: banakako helburuak zehaztuko dira, eta laguntza banaka eman eta haien jarraipena ere banaka egingo da (6 puntu)

Emandako banakako zerbitzuaren ebaluazioa egingo da: ebaluazio-tresnak zehaztu dira (3 puntu)

Bizitzan zeharreko ikaskuntza-jarduera espezifikoak sustatu, diseinatu eta garatuko dira (5 puntu)

Gauzatuko diren jarduerari, bete nahi diren helburuei, eta helburuen betetze-maila ebaluatzeko prozedurari buruzko azalpen zehatzak eman dira (5 puntu)

Bitartekaritza-zerbitzuko helburuak eta lan-metodologia zehaztu dira (9 puntu gehienez)

Bitartekaritza-zerbitzuaren helburuak zehatzak dira eta bete, neur, nahiz ebalua daitezke (3 puntu)

Helburuen betetze-maila ebaluatzeko adierazle zehatzak eman dira (3 puntu)

Aurreikusitako metodologia bat dator zerbitzuaren helburuekin eta zerbitzua hartuko duten herritarren tipologiarekin. Horretaz gainera, metodologia horren azalpen xehatua eman da (3 puntu)

**GUZTIZKOA (100 PUNTU GEHIENEZ)**



## III. ERANSKINA

## PROIEKTU-MOTA: ESPERIMENTAZIO-PROIEKTUAK

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

**a) Proiektuaren zehaztasun maila, ondoko hauek modu zehatzean adieraziz: aurrera eraman nahi den esperimentazio-plana; lortu nahi diren helburuak; ebaluatzeko adierazleak; egutegia; metodologia; zein kolektiborengan izango duen eragina, kolektibo horrek edo horiek zenbat eta nolakoak diren; eragingo zaien pertsonak, ustez, zer onura jasoko dituzten; proposatutako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea; eta erakunde eskatzaileak proiektua ulertzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozer informazio (40 puntu gehienez)**

Hiru gai hauetako bati buruzkoa da esperimentazio-plana: ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia; helduentzako irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiak, gailu mugikorretan oinarritutakoak; edo zer eratako ikaskuntza-ibilbidetatik denbora luzez bazter egon diren pertsonak ikaskuntzara erakartzeko oztopoak ezabatzea (20 puntu)

Helburuak zehaztasun handiz deskribatu dira; eta neurtu nahiz ebaluatu daitezke (2 puntu)

Helburuekin bat datoz ezarritako ebaluazio-adierazleak (4 puntu)

Proiektua garatzeko egutegia zehatza da (2 puntu)

Zehaztasun handiz deskribatu da metodologia; eta haren arrazoiak azaldu dira (3 puntu)

Proiektua zuzendutako taldearen azalpen zehatza eman da: pertsona-kopurua eta tipologia (3 puntu)

Proiektuak taldeari ekarriko dizkion onurak zehaztasun handiz deskribatu dira eta egiaztagarriak dira (2 puntu)

Helburuen betetze-maila neurtzeko prozeduraren eta tresnen deskribapen zehatza eman da (4 puntu)

GUZTIZKO PARTZIALA

**b) Erakunde eskatzaileak proiektua aurrera eramateko dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, proiektuaren egileek eta hura aurrera eramango dutenek zer kualifikazio eta esperientzia duten adieraziz (30 puntu gehienez)**

Proiektua garatuko duten pertsonak parte hartu izana irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiei buruzko, ikaskuntza sustatzeko metodologiei buruzko, eta prestakuntza-metodologiei buruzko esperimentazio- edo ikerketa-proiektuetan (puntu 1 proiektu bakoitzeko; 10 puntu gehienez)

Lehentasunezko hiru gaietako batekin lotura handia duen areetako batean goi-mailako titulazioa dute proiektua zuzenean garatuko duten langileak (2 puntu langile bakoitzeko; 10 puntu lor daitezke gehienez)

Proiektua garatzeko erabilgarri jarriko diren baliabide teknikoen deskribapen zehatza (esparruak, ekipamenduak, softwarea, eta abar) baliabideok egokiak diren ebaluatze aldera (10 puntu gehienez)

GUZTIZKO PARTZIALA

**c) Erakunde eskatzaileak bizialdi osoko ikaskuntzaren eremuko ikerkuntzan eta esperimentazioan izandako bilakaera. (20 puntu gehienez)**

Bizialdi osoko ikaskuntzaren alorrean erakunde eskatzaileak garatutako esperimentazio- edo ikerketa-proiektuak (puntu 1 bakoitzeko; 20 puntu gehienez)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**d) Proiektua bere zonaldeko Bizialdi Osoko Ikaskuntza Planean edota goragoko zonaldeko batean sartzea. (10 puntu gehienez)**

Proiektua bere zonaldeko Bizialdi Osoko Ikaskuntza Planean edota goragoko eremuko baten barruan dago (10 puntu)

Zonaldean ez da, oraindik ere, bizialdi osoko ikaskuntza-planik; baina plan horretan lanean ari dira zonaldeko prestakuntza-eragile publikoak eta pribatuak. Kasu honetan:

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko legearen xedeekin lotura handia du proiektuak (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeko 4. artikulua) (5 puntu)

Beste sail edo herri-administrazio batzuek sustatutako prestakuntzaren eta ikaskuntzaren alorreko berrikuntza- edo esperimentazio-plan batzuekin lotura du proiektuak; eta horren frogak aurkeztu dira (5 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**GUZTIZKOA (100 PUNTU GEHIENEZ)**